



IRAGARKIA, BASQUE TEAM Bekak emateko oinarriei buruzkoa, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak 2016. urterako eman dituen bekak

Eusko Jaurlaritzak, uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren bidez, Goi Mailako Kirola arautu du Euskadin eta 12. artikuluan aurreikusita dago bekak, sariak eta laguntza ekonomikoak ematea kirolaren segmentu hori sustatze aldera, Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren bitartez.

Fundación EUSKADI KIROLA Fundazioa euskal sektore publikoko fundazioa da. Erakunde honen helburua Goi Mailako euskal kirola bultzatu eta sustatzea da; horrela, goi mailako kirolean nazioarteko lehiaketetan erruz parte hartu ahal izango da eta, bereziki, goi mailako kirol ekitaldietan. Halaber, lehiaketa horietan euskal kirolariek goi mailako emaitzak izatea da erakundearen beste helburua.

Erakundeak xede duen Goi Mailako kirolean aritze aldera, Fundación EUSKADI KIROLA Fundazioaren Patronatuak BASQUE TEAM BEKAK ematea onartu du 2016. urterako. Honako oinarri hauek arautuko dute

OINARRIAK

1. artikulua.- Xedea

1.- Oinarri hauen xedea Fundación Euskadi Kirola Fundazioak goi mailako kirolerako ematen dituen Basque Team Bekak arautzea da. 2016ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra.

2. artikulua.- Definizioak

1.- “Basque Team Bekak” izenaren barruan goi mailako kirolerako hainbat laguntza ekonomiko, tekniko eta biomediko daude, eta oinarri hauen 4. artikuluan zehazten dira.

2.- Oinarri hauen ondoretarako, “goi mailako euskal kirola” Euskal Autonomia Erkidegoaren intereserako den kirola praktikatzea da. Erkidegoko kirola garatzeko funtsezko faktorea da; izan ere, oinarri-kirola sustatzeko pizgarria da eta goi mailako kirol lehiaketetan ordezkatzeko aukera ederra ematen du.

3.- Oinarri hauetan “kirolari” buruz egiten diren erreferentzia guztiak goi mailako kirolari buruzkoak dira, Euskadin Goi Mailako Kirola arautzen duen uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritakoekin bat.



3. artikulua.- Beka hauen jasotzaile diren kirol-modalitate eta diziplina edo espezialitateak.

1.- Beka hauek ofizialki onartuta dauden kirol-modalitate guztiak, eta haien diziplinak nahiz espezialitateak sustatu eta lagundu nahi ditu. Nazioarteko Batzorde Olinpiarrek eta Nazioarteko Batzorde Paraolimpiarrek onartutako nazioarteko kirol federazioek antolatzen dituzten lehiaketetan parte hartzea sustatuko du, bereziki, lehiaketa horiek egitarau olinpiarrean edo paraolimpiarrean sartuta badaude. Salbuespenez, beka hauek eragina izango dute beste erakunde edo entitate batzuek antolatutako lehiaketetan, betiere goi mailako diziplina edo espezialitate jakin bat objektiboki garatzen bada aipatu nazioarteko kirol federazioetarik kanpo.

2.- Indarrean dagoen legeriaren arabera, inoren konturako kirolari profesionalak izanda ere, liga profesionaletan soilik parte hartuz gero, beka hauetatik kanpo daude.

4. artikulua.- Basque Team Bekak 2016en edukia.

“Basque Team Bekak 2016”k hainbat laguntza mota izango ditu, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak 2016an emandakoak:

1) Laguntza ekonomikoak

Goi mailako kirolariei emandako laguntza ekonomikoak, honako eduki hauekin:

- a) Oinarrizko beka: entrenamenduan eta lehiaketan buru belarri jarduten dutela bermatzeko laguntza ekonomikoa.
- b) Helburukako sariak: adostutako eta betetako kirol helburuen arabeko sari ekonomikoak. Sari hauek oinarrizko laguntza edo bekaren onuradun diren kirolariek baino ez dituzte jasoko.
- c) Laguntza osagarriak: kirol-errendimendua hobetzeko eta ez ohiko gastuak ordaintzeko. Aurrekontua itxia izango da (lehiaketetan parte hartzea, kontzentrazio bereziak egitea, e.a.). Laguntza hauek oinarrizko laguntza edo bekaren kirolari onuradunek baino ez dituzte jasoko.

Horretarako, eskatzaileek Fundación Euskadi Kirola Fundazioak ezarritako laguntza osagarria eskatzeko protokoloa beteko dute (fundazioaren web orrian argitaratuko dena). Laguntza osagarriak emateko, eta horretarako dirua izan behar da, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak ulertu behar du justifikatuta dagoela laguntza ematea, inguruabar edo egoera jakin batzuk direla eta.

2) Laguntzeko zerbitzuak:

Hauek dira goi mailako kirolariei laguntzeko zerbitzuak:

- a.- Kirol prestakuntza optimizatzeko zerbitzuak, hala nola:



i.- Laguntza tekniko espezializatua goi kirol-errendimenduan. Aukerakoa den laguntza tekniko hori izango da, oinarri hauetan aurreikusitako kontrol teknikoen pean egoteko kirolariek duten beharrari utzi gabe.

ii.- Laguntza biomediko espezializatua goi kirol-errendimenduan. Aukerakoa den laguntza biomediko hori izango da, oinarri hauetan aurreikusitako kontrol biomedikoen pean egoteko kirolariek duten beharrari utzi gabe.

iii.- Laguntza teknikoa berrikuntzan eta kirol-diziplinari aplikatutako garapen zientifikoa.

b.- Kirolariaren gizarte onurarako zerbitzuak, honako programa hauei dagozkienak:

i.- Gizarteratzeko programa, kirolarien prestakuntza akademiko eta profesionalerako, kirol garapen pertsonalera bideratuta, kirolarien “coaching”aren bidez.

ii.- Komunikazioan laguntzeko programa, kirolariek egiten duten kirol jarduera hedatzeko.

3) “Bat \rightarrow Rio” laguntzak

Artikulu honen 1) atalean aurreikusitako laguntza ekonomikoa jasotzen ez badute ere, Rio 2016ko Joko Olinpiarretan edo Paraolinpiarretan parte hartzen badute eta oinarri hauen terminoei jarraituta, euskal kirolari badira laguntza hauek jasoko dituzte.

5. artikulua.- Bekak kudeatu eta esleitzeko organo eskudunak.

Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren Patronatuari dagokio oinarri hauetako beken esleipena ebaztea. Aurrekoa gorabehera, Patronatuak entitateko idazkariaren esku utziko du eskumen hau. Idazkari horrek ebatziko ditu beka-eskaera guztiak, oinarri hauen 14.3 artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Bekak ebazteko, Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren Patronatuko idazkariak, ondorio hauetarako ebazpen-organoa dena, Batzorde edo Batzorde Tekniko baten laguntza izango du. Honako hauek osatzen dute: fundazioko koordinatzailea, fundazioko aholkulari juridikoa, beken arloaz arduratzen den kirol teknikaria eta biomedikuntza zerbitzuko mediku bat.

6. artikulua.-Pertsona eta erakunde onuradunak.

1.- Bekak hartzeko onuradunak goi mailako kirolariak, hauen teknikariak eta kirol erakundeak dira. Horiek guztiek oinarri hauen I. eranskinean adierazitako kirol-irizpide teknikoak bete behar dituzte, baita jarraian adierazten diren betekizun eta baldintzak ere.

2.- Kirolariak. “Basque Team 2016” Bekak jaso ahal izateko, honako betekizun hauek beteko dituzte kirolariek:

a) 16 urte izatea.

b) Administrazio mailan, euskal nortasuna izatea, Autonomia Estatutuan adierazitakoarekin bat.



- c) Dagokion kirol-diziplinan, EAEko euskal edo lurralde federazioak emandako edo izapidetutako lizentzia indarrean izatea. Betekizun honetatik kanpo daude "Bat & Rio" laguntzaren jasotzaile edo onuradunak.
- d) Oinarri hauen 3. artikuluan aadierazitako kirol-diziplina edo espezialitateren batean aritzea.
- e) Goi kirol maila lortu izana indarrean izatea, Euskadin Goi Mailako Kirola arautzen duen uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren II. Kapituluko 2. atalean ezarritakoekin bat. Betekizun honetatik kanpo daude bakar-bakarrik "Bat & Rio" laguntzaren jasotzaile edo onuradunak.
- f) 2016an goi mailako kirol hori entrenatzen eta praktikatzen jarraitzea. Kirola jardueran ari dira lan ezgaitasunean edo kirol bajaran daudenak, behar bezala egiaztatuta. Goi mailako lehiaketetara berriz itzuliko direla aurreikusita dago, dagokion senda-agiria jaso eta gero.
- g) Diziplina edo kirol hauste larria edo oso larria egitearen ondorioz, edozein lurraldeko kirol federaziok edo administrazio-agintaritzak zigortuta ez egotea edo desgaikuntza-zigorrik ez izatea. Horretarako, zigortutzat hartuko da ebazpen betearazlea izatea, nahiz eta irmoa ez izan.
- h) Diziplina edo kirol hauste larria edo oso larria egitearen ondorioz, edozein lurraldeko kirol federaziok edo administrazio-agintaritzak zigortuta ez egotea edo zuhurtasunezko desgaikuntza-zigorrik ez izatea.
- i) Zigor Kodearen 286 bis 4. eta 361 bis artikuluetan aurreikusitako legez kanpoko gorabeherak direla eta, inputatuta, auzpipetuta edo zigortuta ez egotea.
- j) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

3.- Kirol-teknikariak. "Basque Team 2016" Bekak jaso ahal izateko, honako betekizun hauek beteko dituzte teknikariek:

- a) Adinez nagusia izatea.
- b) Honako kirol-prestakuntzak edo akademikoak, edo baliokideak gainditu direla egiaztatzea:
 - i.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatura edo Gradua;
 - ii.- Unibertsitateko masterra Goi mailako Kirol-errendimenduan, unibertsitate publikoetakoa edo pribatuetakoa, indarrean dauden legeek edo batzorde olinpiar batek onartuak.
 - iii.- Goi Kirol-teknikari titulua, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuarekin bat; edo goi mailako kirol prestakuntzak, Errege Dekretu horretan ezarritakoekin bat eta horren ondoriozko araudiekin bat gero onar daitezkeenak.
 - iii.- puntuan prestakuntza berariazkoa izango da, eskabidearen xede den kirol modalitate edo diziplinari buruzkoa, hain zuzen ere.

Baldintza hau ez dute beteko, iii.- puntua dela-eta, lehen aipatutako titulazioak egiaztatu ezin dituztenek, izan ere, eskabidea egin denetik aurreko hiru urteetan estatu mailan goi



mailako ikastaro ofizialik -Goi Kirol Teknikaria edo III. maila- izan ez duten kirol modalitateak dira. Horrelakoetan, eskatzaileak Kirol teknikariaren titulua edo II. mailakoa (edo gero onar daitezkeen eta baliokide diren kirol prestakuntzak) izan behar du.

- c) Oinarri hauen 4. artikuluko 1-a) paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, oinarrizko laguntza edo beka baten onuradun den kirolari baten kirol-prestakuntza teknikoaz arduratzen den pertsona izatea eta kirolariak berak onartua izatea. Kirolari bakoitzak, gehienez, pertsona bakarra onartuko du prestatzaile gisa. Prestakuntza teknikoaz arduratzen den pertsona aldatuz gero, kirolariak berak jakinaraziko dio Fundación Euskadi Kirola Fundazioari, idatziz. Jakinarazpena egiten denetik hasita izango ditu ondoreak.
- d) Goi mailako teknikaria lortu izana indarrean izatea, Euskadin Goi Mailako Kirola arautzen duen uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren II. Kapituluko 2. atalean ezarritakoekin bat. Betekizun honetatik kanpo daude bakar-bakarrik artikuluko honen 3. ataleko b) epigrafean aurreikusitako salbuespenezko puntuan daudenak.
- e) 2016an kirolariaren arduradun tekniko nagusia izaten jarraitzea.
- f) Diziplina edo kirol hauste larria edo oso larria egitearen ondorioz, edozein lurraldeko kirol federaziok edo administrazio-agintaritzak zigortuta ez egotea edo desgaiakuntza-zigorrik ez izatea. Horretarako, zigortutzat hartuko da ebazpen betearazlea izatea, nahiz eta irmoa ez izan.
- g) Diziplina edo kirol hauste larria edo oso larria egitearen ondorioz, edozein lurraldeko kirol federaziok edo administrazio-agintaritzak zigortuta ez egotea edo zuhurtasunezko desgaiakuntza-zigorrik ez izatea.
- h) Zigor Kodearen 286 bis 4. eta 361 bis artikuluetan aurreikusitako legez kanpoko gorabeherak direla eta, inputatuta, auzipetuta edo zigortuta ez egotea.
- i) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

4.- Kirol erakundeak. "Basque Team" Bekak jaso ahal izateko, honako betekizun hauek beteko dituzte kirol-erakundeek:

- a) Fundación Euskadi Kirola Fundazioak lehentasunezko interestzat jotzen dituen kirol-modalitate, diziplina edo modalitatetako bateko kirol erakundea izatea, oinarri hauen I. eranskinean (4. irizpidea) ezarritakoarekin bat.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol-Erakundeen Erregistroan izena emanda egotea.
- c) Kirol-diziplina edo espezialitate berean eta kategoria absolutuan gutxienez kirolari bi izatea, oinarrizko beka baten onuradun direnak, betiere oinarri hauen 4. artikuluko 1-a) paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, eta/edo I. eranskineko 6. irizpidean aurreikusitakoaren arabera.
- d) Kirolarien teknikari arduradun nagusia kirol erakundeko partaide izatea.
- e) Goi mailako kirola prestatu ahal izateko giza baliabide, baliabide tekniko eta kirol instalazio egokiak izatea.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.



5.- Honako muga hauek ezarri dira oinarri hauetan aurreikusitako beka emateko:

- a.- Kirolari beka duten pertsonak ezingo dira teknikari izan edo alderantziz.
- b.- Kirol modalitate, diziplina edo espezialitate bakoitzeko kirol-entitate bakarrak jasoko du beka.
- c.- Oinarrien 4. artikulua 1) atalean aurreikusitako laguntza ekonomikoa jasotzen dutenek ezingo dituzte 3) ataleko "Bat & Rio" Laguntzak jaso.
- d.- Kirol entitate bat ezin da beka baten onuradun izan, modalitate, diziplina edo espezialitate berari dagokionez, hitzarmenik indarrean baldin badago Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren eta beste pertsona fisiko nahiz juridiko batzuen artean.

7. artikulua.- Beka hauek Goi Mailako Kirolari buruzko Dekretuarekin duten harremana.

1.- Beka hauek eskatzen dituzten kirolariek zein teknikariek, eskabidea egin aurretik goi kirol mailako kirolari edo teknikari izateko deklarazioa indarrean izan behar dute, betiere Goi Mailako Kirola arautzen duen uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren II. Kapitulua 2. atalean ezarritakoekin bat. Salbuetsita daude oinarri hauen 6. artikulua 2 e) –kirolariak- eta 3 b) –teknikariak- ataletan aurreikusitakoak.

2.- Aurreko paragrafoan eskatzen den betekizuna ezinbestekoa da beka hauek eman ahal izateko, baina ez da nahikoa izango.

3.- Beka hauek eskatzen dituzten pertsonak ez dute goi mailako kirolari edo teknikari izateko izapidetzerik egiaztatu beharrik, Goi Mailako Kirola arautzen duen uztailaren 20ko 203/2010 Dekretua ezarritakoekin bat. Fundación Euskadi Kirola Fundazioak berak egiaztatuko du artikulua honetan eskatutakoa betetzen dela.

8. artikulua.- Laguntzak salbuespenez ematea.

Salbuespenez, beka hauek beste zenbait pertsona edo erakunderi eman ahal izango zaizkie: 203/2010 Dekretuaren arabera goi mailako kirolari izateko deklarazioa indarrean badute eta, hala ere, behar bezala justifikatutako kirol arrazoi, arrazoi teknikoak edo biomedikoak direla eta, I. eranskinean eskatutako kirol-merituak egiaztatu ezin badituzte. Pertsona horiei eskatuko zaie, edonola ere, 6.2 artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzeko kirolarien kasuan, eta 6.3 artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzeko, teknikarien kasuan.

9. artikulua.- Konpromisoa kirol-osasunarekin eta dopinaren aurkako borrokarekin.

"Basque Team 2016" Beken pertsona onuradun guztiek aldeztu aurretik konpromisoa egiaztatu behar dute kirol-osasunarekin eta dopinaren aurkako borrokarekin, Euskadiko ekainaren 21eko dopinaren aurkako 12/2012 Legeari eta bat datozen gainerako legeei jarraituz. Horretarako, kirolariek nahiz teknikariek beren beregi emango dute datu pertsonalak lagatzeko baimena, baita datu biomedikoak ere, Dopinaren Aurkako Euskal



Agentzia erabil ditzan, erakunde horrek dituen eskumenen barruan. Betebehar eta erantzukizun horiek onartzea Fundación Euskadi Kirola Fundazioarekiko konpromiso-agiriaren zati da, beka baten pertsona onuradun orok sinatu beharrekoa.

10. artikulua.- Eskabideak tramitatzea.

1.- Interesaturik dauden pertsona eta erakundeek Fundación Euskadi Kirola Fundazioa bidaliko dituzte eskabideak. Horretarako, dagokion idazki eredua bete (oinarri hauen II., III. eta IV. eranskinak) eta hurrengo paragrafoetan adierazten den agiriekin batera helbide honetara bidaliko dute: Makaleta etorbidea z/g 48992-Getxo (Fadurako Teknika Hobekuntzarako Zentroa), edo honako e-mail honetara: fundacion-ek@euskalnet.net Era berean, aurreko urteetan Euskadi Kirola Bekaren onuradun izan direnek Fundazioaren intranet bidez egin behar izango dute eskabideen izapidetzea. URL helbidea honako hau da: <https://sis.netaphora.es/beta/login.jsp>

2.- Eskabidearekin batera kirolariak agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- a) NANren edo pasaportearen kopia, eta atzerritarra bada, bizileku-txartela.
- b) Administrazio mailan, euskal nortasuna izatea, Autonomia Estatutuan adierazitakoarekin bat. Administrazio-egoitzaren kasuan, Euskal Autonomi Erkidegoan erroldaren ziurtagiria, erroldatzea eskabidea egin den baino urtebete lehenago dagoela egiaztatzen duena.
- c) Dagokion Euskal Federazioak emandako edo bideratutako kirol Lizentziaren kopia soila.
- d) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.
- e) Kirol-kurrikulua. Bertan nazioartean lortu diren kirol emaitzarik nabarmenenak deskribatuko dira, bereziki 2015. urtean, eta hala badagokio, 2016. urtean lortutakoak.
- f) 2016rako eta 2016-2017 denboraldirako kirol-planifikazioa, denboraldia hasi aurretik, kirolariak eta teknikari arduradunak sinatua. Agiri horretan honako hauek agertuko dira: helburu nagusiak eta bigarren mailako helburuak, lehiaketak non eta noiz egingo diren. Gainera, helburuekin bat datozen entrenamendu saioen deskribapen zehatza egingo da, baita aurreikusita dauden kontrolak ere.
- g) Egongo balitz, ingurune biomedikoa identifikatzeko zinpeko erantzukizuneko aitortpena, kirolariak sinatua, ingurune horretan sartuta dauden pertsonen kualifikazioak eta akreditazioak (Medikuntza Lizentziatura eta elkargokide zenbakia) barne daudela.
- h) Kirola egiteko gai dela egiaztatzen duen mediku-ziurtagiri ofiziala (Medikuen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak emanda), beka eskatzen denetik lau urtetik gorako ziurtagiria ez bada.
- i) Era gehigarrian, kirol egokituko kirolariak desgaitasun maila egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala aurkeztuko dute.



j) Kirolaria adin txikikoa bada, dagokion baimena, aitak, amak edo tutoreak sinatua.

3.- Eskabidearekin batera teknikariek agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- a) NANren edo pasaportearen kopia.
- b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.
- c) Ikasketa-tituluen kopia soila, oinarri hauen 6. artikuluko 3-b) paragrafoan adierazi bezala.
- d) Oinarrizko bekaren kirol onuradunak sinatutako zinpeko aitorpena, 4. artikulua 1-a) paragrafoan aurreikusitakoarekin bat. Bertan adierazten da kirol teknikari gisa beka eskatzen duena kirolariaren prestatzaile nagusia dela.

4.- Eskabidearekin batera kirol erakundeek agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- a) IFKren txartelaren kopia.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan izena emanda dagoela adierazten duen ziurtagiria.
- c) Erakundea eratzeko agiriaren eta estatutuen kopia.
- d) Kirol-erakundearen legezko ordezkariaren NANren kopia.
- e) Ordezkatzeko ahalmenaren egiaztatzea, bai ahalordetze-eskrituraren bidez, bai, hala badagokio, dagokion organoak egindako ziurtagiriaren bidez.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.
- g) Bekaren onuraduna den kirol erakundeko kirolari guztiak kirolerako gai direla egiaztatzen duten mediku-ziurtagiriak.
- h) Kirol erakundeko kirolari guztien dagokion euskal federazioak emandako edo bideratutako kirol lizentziaren kopia soila.
- i) Kirol-plantillako kirolari guztien zerrenda osoa.

5.- Era gehigarrian, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak behar beste agiri eta argibide eskatu ahal izango ditu bekek emateko.

6.- Beka eskabidearekin batera erantsiko diren agirien ereduak fundazioaren web orrian daude interesatuen eskuragarri: www.basqueteam.eus



11. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea eta akatsak zuzentzea.

1.- Oinarri hauek Fundación Euskadi Kirolak Fundazioaren web orrian argitaratzen direnean zabalduko da eskabideak aurkezteko epea, eta oinarriak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen direnetik hasita hilabeteko (1) epean itxiko da.

2.- Fundación Euskadi Kirola Fundazioak, behin eskabideak eta beharrezko agiriak jasota, banakako espedientea egingo du eskabide bakoitzeko, eta oinarri hauetan onartutako irizpideen arabera aztertuko da.

3.- Aurkeztu diren eskabidea eta bestelako agiriak aztertuta, akatsik egonez gero edo agiririk falta izanez gero, eskatzaileari jakinarazi eta hamar egun balioduneko epea emango zaio zuzendu ahal izateko. Epea bukatuta, eta zuzenketarik ez badago, uko egintzat hartuko da.

4.- “Basque Team 2016” Beka artikuluko honen 1. atalean ezarritako epetik harago eska daiteke, honako baldintza hauetan: (i) “Bat & Rio” Laguntzaren onuradun direnak; (ii) Rio 2016ko Joko Olinpiarretan edo Paraolinpiarretan parte hartzeko sailkapena lortu dutenak artikuluko honen 1. atalean ezarritako epetik harago. Artikulu honen atal honetan aurreikusitako baldintzetan, onuradunak Konpromiso-Agiria sinatu behar du Fundación Euskadi Kirola Fundazioarekin Rio 2016ko Joko Olinpiarretan parte hartu baino lehen.

12. artikulua.- Bekak emateko prozedura: kirol-auditoretza eta derrigorrezko mediku-azterketa.

1.- Ebazpen-organoak espedientea jaso eta oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera aztertu eta balioetsiko du eta, hala badagokio, kirol-auditoretza eta derrigorrezko egokitasuneko mediku-azterketa proposatuko ditu. Lan horiek teknikari eta mediku adituek egingo dituzte, betiere beka eman aurretik.

2.- Beka eskatzaileek kirol-auditoretza eta mediku-azterketa egin beharko dute, kirola praktikatzeko gai direla bermatze aldera, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak proposatutakoei jarraituz. Eskatzaileak auditoretza eta azterketa egiteari ezetz esaten badio, ukatu egingo zaio eskabidea, besterik gabe.

3.- Ebazpen-organoak, egindako auditoretza, azterketa eta Fundación Euskadi Kirola Fundazioak duen finantza eta aurrekontua aintzat hartuta, beka emateko edo ukatzeko ebazpen zioduna egingo du, eta idatziz jakinaraziko zaio pertsona edo erakunde eskatzaileari.

13. artikulua.- Bekak balioesteko eta kuantifikatzeko irizpideak.

1.- Ebazpen-organoak beka emateko ebazpena egingo du pertsona edo erakunde eskatzaileen kirol merituen arabera. Halaber, oinarri hauetan eskatutakoak betetzen direla bermatuko du.

2.- Meritu eta baldintza horiek balioesteko ebazpen-organoak oinarri hauen I. eranskinean adierazten diren balioesteko irizpideak aplikatuko ditu nahitaez. Bereziki, irizpideak honela aplikatuko dira:



- a) Goi Mailako kirolariak. Goi mailako kirolarien merituak balioestea I. eranskinean ezartzen diren balioesteko eta kuantifikatzeko irizpideetan oinarrituz zehaztuko da. Hala badagokio, balioespen horrek oinarri hauen 4. artikulua 1-a) paragrafoan adierazitako oinarritzko beka ematea ekarriko du.
- b) Kirol-teknikariak. Oinarri hauen 4. artikulua 1-a) paragrafoan adierazitako oinarritzko beka jasotzeko proposatzen den kirolari bakoitzeko, teknikariari beka arrunta emango zaio. Oinarritzko bekaren % 25 gehi kirolariak jasoko duen sariaren % 25 izango da zenbatekoa. Beka arruntaren ondorioetarako, ez da onartuko 3 kirolaritik gora teknikari bakoitzeko; beraz, teknikari batek edo teknikari berak atal honetan aurreikusitako kopuruak jasoko ditu 3 kirolariko gehienez.
- c) Kirol-erakundeak. Fundación Euskadi Kirola Fundazioak lehentasunezkoak jotzen dituen kirol-diziplinen kirol-erakundeei baino ez zaizkie emango diru-laguntzak, I. eranskinean (4. irizpidea) ezarritakoarekin bat, eta kirol-plantillan gutxienez goi mailako kirolari bi dituztenak kategoría absolutuan, oinarri hauen 4. artikulua 1.a) paragrafoan eta/edo I. eranskineko 6. irizpidean adierazitako oinarritzko beka baten onuradunak.

3.- Beka, sari eta laguntza osagarrien zenbatekoa zehazteko, aurkeztu eta onartu diren eskabideak eta Fundación Euskadi Kirola Fundazioak duen finantza egoera hartuko dira kontuan. Oinarri hauen bidez onuradunek ez dituzte bermatuta dagozkien beka, sari edo laguntzen zenbatekoak; adierazitako inguruabarrek baldintzatuta jasoko dituzte, edonola ere.

14. artikulua.- Ebazpena

1 – Ebazpen-organoak gehienez ere bi (2) hilabeteko epean ebatzi edo ukatuko du beka ematea, eskabideak aurkezten diren egunetik zenbatzen hasita.

2.- Ebazpena, edonola ere zioduna dena, banaka jakinaraziko zaie beka eskatzen dutenei.

3.- Ebazpenaren aurka errekurtsua jar daiteke Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren Patronatuko lehendakariaren aurrean, jakinarazten denetik hasita 15 eguneko epean.

4.- “Basque Team 2016” Beka emateko onuradunak Konpromiso-Agiria sinatu beharko du Fundación Euskadi Kirola Fundazioarekin, oinarri hauen 16. artikuluan adierazitakoarekin bat.

5.- “Basque Team 2016” Beka eman dela jakinarazi ondoren, pertsona edo erakunde onuradunak beren beregi uko egin ahal izango dio onartu aurretik.

15. artikulua.- Onuradunak onartzea.

Beken onuradun diren pertsona eta kirol-erakundeek, oinarri hauetan arautuak, Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren egoitzara agertu beharko dute, beka ematea jakinarazten denetik gehienez ere hilabeteko (1) epean, dagokion beka beren beregi onartzeko eta Fundación Euskadi Kirola Fundazioarekin Konpromiso Agiria sinatzeko.

16. artikulua.- Konpromiso Agiria Fundación Euskadi Kirola Fundazioarekin.



Fundación Euskadi Kirola Fundazioarekin sinatuko den Konpromiso Agiria derrigorrezkoa da beken onuradun diren pertsona eta erakundeentzat. Honetara daude behartuta:

- a) 2016an zehar goi mailako kirol-jardueran eta entrenatzen jarraitzea.
- b) Fundación Euskadi Kirola Fundazioari, aldizka, kirol-jarduerari lotutako funtsezko informazioa ematea (kirol-emaitzak, gorabehera fisikoak, deialdiak, desplazamenduak...). Bereziki, kirolari guztiek adierazi behar dute noiz, non eta zein lehiaketatan egin dituzten mediku kontrolak, bai antidopinak, bai osasunekoak. Horretarako, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak prozedura berezia prestatuko du oinarri hauen onuradunek derrigorrean bete beteko dutena.
- c) Agirian ageri den kirol-planifikazioan ezarritako kontrolak betetzea, kirol-planifikazioa jarraitze aldera.
- d) Fundación Euskadi Kirola Fundazioak zehaztuko dituen ikur eta markak eramatea, betiere lehiaketan arautegiak uzten badu.
- e) Fundación Euskadi Kirola Fundazioak antolatzen dituen sustatzeko jardunaldi eta ekitaldietan parte hartzea.
- f) Kirol-jarduerari lotutako diru-sarrera guztiak egiaztatzea eta horien berri Fundación Euskadi Kirola Fundazioari ematea.
- g) Kirol-lehiaketetan eta lehiaketetatik kanpo joko garbia erakustea, mugimendu olinpiarren printzipioekin bat.
- h) Datu pertsonalak, baita bereziki babestuta dauden biomedikoak ere, lagatzeko baimena ematea, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak dituen administrazio-eskumenetan erabil ditzan.
- i) Fundación Euskadi Kirola Fundazioari laguntzea enpresa babesleekin dituen publizitate-konpromisoak betetzen.
- j) Fundación Euskadi Kirola Fundazioarekiko eta fundazioko kideekiko errespetuzko jarrera izatea uneoro. Horien irudia edo ohorea kaltetu dezakeen adierazpen publikorik edo jarduerarik saihestuko da.
- k) Baimena ematea, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak kirolariaren edo kirol erakundeetako kideen irudia eta/edo ahotsa erabil dezan xedeari lotutako ekintzetan, betiere egoki deritzon terminoetan. Ez da horregatik inolako ordainketarik edo konpentsaziorik eskatuko.
- l) Fundación Euskadi Kirola Fundazioarekin adostu den Konpromiso Agirian ezarritako beste edozein betebeharrak.

17. artikulua.- Basque Team 2016 Bekak ordaintzea.

1.- Hilero ordainduko dira 4. artikuluan 1-a) paragrafoan aurreikusita dauden oinarrizko bekek, Fundación Euskadi Kirola Fundazioarekin Konpromiso Agiria sinatzen denetik hasita.



2.- Era bakarrean egingo da 4. artikularen 1-b) paragrafoan aurreikusita dagoen helburukako sari-ordainketa, Fundación Euskadi Kirola Fundazioarekin sinatutako Konpromiso Agirian adierazten den kirolari bakoitzarentzako helburua bete dela egiaztatu eta gero.

3.- Beken ebazpen-organoak baimenduko du 4. artikularen 1-c) paragrafoan aurreikusita dauden laguntza osagarriak ordaintzea, kasuan kasuko eskabideak eta inguruabarrak kontuan hartuta. Aldez aurretik oinarritzko bekaren onuradunak eskatuko du, Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren administrazio sailak adierazitako eskabide-protokoloari jarraituz (laguntza osagarriak eskatzeko ereduak eskuragarri jarriko dira fundazioaren web orrian: www.basqueteam.eus).

4.- “Bat & Rio” Laguntzak, 4. artikularen 3) paragrafoan aurreikusita dagoena, era bakarrean ordainduko dira, Rio de Janeiro 2016ko Joko Olinpiarretan edo Paraolimpiarretan parte hartu dela egiaztatu ondoren, horretarako Fundación Euskadi Kirola Fundazioak ezarritako Agiria sinatuta.

5.- Oinarri hauen I. eranskineko 5. eta 6. irizpideetan ezarritakoen barruan sartuta daudenei honela ordainduko zaizkie laguntzak. 4. artikularen 1-a) paragrafoan adierazitako laguntza eman dela ebatzi eta gero, eta onuradunak onartuta eta konpromiso-agiria sinatuta, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak hari lehen ordainketa egingo dio, hain zuzen ere, beka hauek erabiltzen hasten denetik ordura arteko hileko guztiak. Lehen ordainketa adierazitako terminoetan egin eta gero, gainerako zenbatekoa hileroko egingo zaio onuradunari.

18. artikulua. -Beken bateragarritasuna.

Bateragarri dira batetik oinarri hauetan araututa dauden bekak, sariak eta laguntzak eta, bestetik, beste edozein erakunde publiko edo pribatuk, helburu berarekin, onuradun berari eman ahal dion edonolako laguntza. Aurrekoaren kalterik gabe, Beka eta Laguntza hauek emateak ez dakar inola ere diruz lagundutako kirol jardueraren gainfinantzakerik. Horretarako, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak goi mailako kirolari diru-laguntzak ematen dizkieten beste erakunde publiko zein pribatu batzuekin jokatu du lankidetzan, iruzurrik edo neurritz gainerako jardunbiderik egon ez dadin.

19. artikulua.- Beken prestazioak ez betetzea eta etetea.

1.- Oinarri hauetan eskatutako betebeharrak ez betetzeak, edo oinarrietan eskatutako baldintzak gerora sortzeak administrazio-espedita egitea ekarriko du, betiere bekak eman ondoren gertatuz gero. Beka jaso duen pertsona edo erakundeari entzun ondoren, bekaren prestazioak eten eta ukatu daitezke, ebazpen-organoak erabakiko du norainokoa den.

2.- Halaber, beken onuradun diren pertsonak edo erakundeek hartutako betebeharrak ez betetzeak kontratua ez betetzea ekarriko du, eta horrela dago jasota 16. artikuluan aurreikusitako Konpromiso Agirian. Interesdunari entzun ondoren, berehala eten daiteke dirulaguntza, ebazpen-organoak erabakitakoei jarraituz.

3.- Era gehigarrian, eta ez betetzea ekarri duten inguruabarrak kontuan izanda, ebazpen-organoak, dagokion akordio justifikatuaren bidez, eska dezake jasotako zenbateko osoa edo zati bat Fundación Euskadi Kirola Fundazioari itzultzeko.



4.- Salbuespenez, ebazpen-organoak erabakiko du, kautelazko neurri gisa, behin-behinean eteteko kirolariei emandako laguntzak eta bekak, onuradunei entzun gabe, dopin gorabeheretan edo kirol jarduerari lotutako beste konturen batean nahastuta badaude. Edonola ere, egoera horietara heltzeko bekaren onuradunak inputatuta, auzipetuta, salatuta edo, besterik gabe, erakunde eskudun batek egindako prozedura baten zati izan beharko du kirol jarduerari lotutako dopin edo bestelako iruzurrak direla eta.

20. artikulua.- Oinarri hauek interpretatzea.

“Basque Team 2016” Bekak eskatu eta emateari lotuta dauden eta oinarri hauetan ageri ez diren egoerak edo alderdiak ezagutu eta ebaztea Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren Patronatuko idazkariari dagokio, baita, espedienteetan gerta daitezkeen zalantza edo eztabaidak direla eta, oinarriak interpretatzea ere.

Getxon, 2015eko azaroaren 20an.

FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOA
JON REDONDO LERTXUNDI



I. ERANSKINA

KIROL MERITUAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

“BASQUE TEAM BEKAK 2016” oinarri hauek eskatzen dituzten baldintzak bete eta kirol-merituak egiten dituztenei emango zaizkie. Meritu horiek honako balioesteko irizpide tekniko hauen arabera haztatu eta balioetsiko dira:

1. IRIZPIDEA.- Oro har, oinarrien 4. artikuluan aurreikusitako laguntzak emateko “kategoria absolutuan” nahiz “kategoria gorenean” eta nazioartean lortutako kirol-emaitzak bakarrik hartuko dira aintzat, 2015eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak betiere (biak barne).

Oinarri hauen ondoretarako, “kirol emaitza” nazioartean egiten den lehiaketa ofizialean lortutako postua da, bereziki, Munduko Txapelketetan eta Europako Txapelketetan.

Era berean, eta oinarri hauen ondoretarako, “kategoria absolutua” honako hau da: kirol-modalitate bakoitzaren maila goreneko kirol lehiaketa egiten den adin kategoria.

Orobat, eta oinarri hauen ondoretarako, “kategoria gorena” honako hau da: dagokion lehiaketa mailatan antolatuta egonez gero, talde gorena.

2. IRIZPIDEA.- Kirol egutegian errotuta dauden lehiaketetan lortutako kirol-emaitzak balioetsiko dira soil-soilik. Kirol egutegian errotuta dauden lehiaketak gutxienez 10 ekitaldi egin dituztenak dira, edo jarraian, ez urtero derrigorrean, azken 10 urteotan egin direnak.

3. IRIZPIDEA.- Banakako kirol-modalitateko diziplina olinpiarretan, taldekako lehiaketetan lortutako emaitzak baino ez dira kontuan hartuko, betiere honako probei lotuta egonez gero: (i) indarrean dagoen egitarau olinpiarrekoak izan behar dute; (ii) egitaraukoak ez diren arren, era autonomoan eta taldekako berariazko proba batean egitea, eranskin honen 1. irizpidean adierazitako lehiaketen barruan. Ez dira (ii) atalean sartuko lehiaketetan taldeen sailkapena egiteko kideen puntuak, postuak edo denborak batu behar izanez gero.

4. IRIZPIDEA.- Euskadi Kirola Bekak 2016 hauek jasotzeko Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren lehentasunezko kirol-diziplinak honako hauek dira: emakumezkoen belar gaineko hockey-a, emakumezkoen eskubaloia, pistako ziklismoa eta slalom-piraguismoa.

5. IRIZPIDEA.- Halaber, “Basque Team 2016” Beka emango zaie 2016ko Rio de Janeiroko Joko Olinpiarretan edo Paraolinpiarretan parte hartu dutela egiaztatzen dutenei.

6. IRIZPIDEA.- Salbuespenez, 2015ean Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren beka baten onuradun izan diren kirolari eta kirol-erakundeek Fundación Euskadi Kirola Fundazioak ematen dituen zerbitzu osagarriak erabiltzeko eskubidea izango dute 2016an, oinarri hauen 4. artikularen 2. paragrafoan adierazitakoarekin bat, nahiz eta 1. irizpidean zehaztutako kirol-emaitzarik ez egiaztatu, eta betiere oinarri hauetan ezarritakoa betez gero. Horrelakoetan, sinatutako konpromiso-agirian aurreikus daiteke 2016ko denboraldian kirol-emaitza jakin bat lortu izanak - Fundación Euskadi Kirola Fundazioak aurrez zehaztua-oinarri hauen 4. artikularen 1. atalean adierazitako laguntza ekonomikoa ordaintzea dakarrela.



5. eta 6. irizpideetan ezarritakoaren kalterik gabe, beka hauen onuradun izateko, pertsona eskatzaileek jarraian aipatzen diren kirol-merituen bat egiaztatu beharko dute eskabideetan.

KIROL MERITUAK

Kirol-merituak balioesteko, “kirol-potentziala” eta honako taula hau hartuko dira erreferentziatzat.

KIROL POTENZIALA	PUNTAKOAREKIN ALDEA	Lehiaketa-balioa	Indarrean dagoen egitarau olinpiarreko proba	60
			Kontinenteak	
			Herrialdeak	
	Lortutako postuaren balioa			
	HOBETZEKO ERRESERBA	Adina		18
Zenbat urte lehiatzen			12	
Kirol-ibilbidea			6	
Biotipoa			4	
			GUZTIRA	100

Kirolari bakoitzaren “kirol-potentziala” kontzeptua 0tik 100 puntura balioetsiko da. Kontzeptu horrek bi azpikontzeptu ditu: “puntakoarekin aldea” (guztizkoaren % 60ko balioa du edo 60 puntu) eta “hobetzeko erreserba” (guztizkoaren % 40ko balioa du, edo 40 puntu).

“Puntakoarekin aldea” azpikontzeptua lortutako kirol-emaitez ari da eta, aurreko taulan grafikoki adierazi bezala, beste bi baliotan banakatzen da: “lehiaketa-balioa” eta “lortutako postuaren balioa”

- “lehiaketa-balioa” nazioarteko lehiaketaren kategoria haztatzea da. Horretarako, zenbait arlo hartzen dira kontuan, hala nola, indarrean dagoen Egitarau Olinpiarreko proba den ala ez (Rio 2016 eta PyeongChang 2018), zenbat kontinentek eta herrialdek hartzen duten parte.
- “lortutako postuaren balioa” aztertzen den lehiaketaren azken sailkapenean eskatzaileak lortutako postua haztatzea da. Haztapena horrela egiten da: koefiziente zuzentzailea “lehiaketa-balioan” aplikatu, goranzko edo beheranzko joera duena, betiere kirolariak sailkapenean lortu duen posizio erlatiboaren arabera.

Bestalde, “hobetzeko erreserba” azpikontzeptuak kirolariaren inguruabarrak eta ezaugarriak balioesten ditu, kirol-jarduerari zuzenean loturik daudenak eta, taulan adierazi bezala, beste lau baliotan banakatzen da: kirolariaren adinaren haztapena, zenbat urte eman duen lehian, kirolariaren biotipoa eta kirol-ibilbidea.

Pertsona eta kirol erakunde eskatzaileen kirol merituen haztatu egingo dira, honako talde hauetako batekoak diren aztertuta:

A Taldea – Banakako kirolariak, indarrean dagoen Egitarau Olinpiarreko probetakoak (Rio 2016 eta PyeongChang 2018)



Indarrean dagoen egitarau olinpiarreko proba bateko banakako kirolarien kirol-potentzian balioetsiko dira, honako balore taulari jarraituz:

A Taldeko kirolariei eskatzen zaizkien kirol-merituak: beka hauen onuradun izateko, A Taldeko kirolariek gutxienez 60 puntu atera beharko dituzte kirol-potentzian balioestean. 60 puntu horietatik, gutxienez 40, "puntakoarekin aldea" kontzeptuari dagozkio.

B Taldea – Banakako kirolariak, baina indarrean dagoen Egitarau Olinpiarrekoak (Rio 2016 eta PyeongChang 2018) ez diren probetakoak.

Diziplina ez olinpiarreko edo indarrean dagoen Egitarau Olinpiarrekoa ez den probako banakako kirolariak "puntakoarekin aldea" azpikontzeptuaren bidez soilik balioetsiko dira, honako honi jarraituta:

B Taldeko kirolariei eskatzen zaizkien kirol-merituak: beka hauen onuradun izateko, B Taldeko kirolariek gutxienez 40 puntu atera beharko dituzte, 60 puntutik, "puntakoarekin aldea" azpikontzeptuan, aplikagarri den taulan adierazi bezala.

C Taldea - Taldekako kiroletako kirolariak, indarrean dagoen Egitarau Olinpiarrekoak (Rio 2016 eta PyeongChang 2018) diren proba olinpiarretan.

Beka hauen onuradun izateko, taldekako kiroletako kirolariek diziplina olinpiarretan dagokion kiroleko Munduko Txapelketako edo Europako Txapelketako azken fasean edo Joko Olinpiarretan zerrenda ofizialean sartuta egon izana egiaztatu beharko dute, gutxienez behin eta 2015eko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 bitartean.

D Taldea - Taldekako kiroletako kirolariak, indarrean dagoen Egitarau Olinpiarrekoak (Rio 2016 eta PyeongChang 2018) ez diren probetan.

Taldekako kiroletako kirolariak, indarrean dagoen Egitarau Olinpiarrekoak ez diren probetan, "puntakoarekin aldea" azpikontzeptuaren bidez soilik balioetsiko dira, aplikagarri den taulan adierazitakoei jarraituz. Horretarako, "kategoria gorena" hartuko da kontuan, hau da, dagokion lehiaketa mailatan antolatuta egonez gero, sailkapen gorena.

D Taldeko kirolariei eskatzen zaizkien kirol-merituak: beka hauen onuradun izateko, D Taldeko kirolariek gutxienez 40 puntu atera beharko dituzte, 60 puntutik, "puntakoarekin aldea" azpikontzeptuan, aplikagarri den taulan adierazi bezala.

E Taldea – Goi Mailako kirolari egokituak

Beka hauen onuradun izateko, kirol egokituetako kirolariek honako bi baldintzetako bat behar dute:

- a) Dominaren bat lortu behar izan dute 2015. urtean, Europako Txapelketan.
- b) Lehen lau postuetarik bat lortu 2015. urtean, Munduko Txapelketan.

F Taldea – Kirol teknikariak



Beka eskuratzeko, kirol teknikariek A, B, C, D edo E Taldeetako kirolariren baten prestakuntzaren arduradun nagusiak direla egiaztatu behar dute. Kirolari horiek, gainera, oinarritzko beka baten onuradun dira, oinarri hauen 4. artikuluko 1-a) paragrafoan adierazitakoekin bat.

Bekak honako zenbateko hau jasotzeko eskubidea ematen du: oinarritzko bekaren % 25 eta kirolariak lortutako sariaren % 25 arteko batuketa. Beka arrunta kalkulatzeko aldera, ez dira 3 kirolari baino gehiago zenbatuko teknikari bakoitzeko.

G Taldea – Goi Mailako Kirol-Erakundeak

Beka hauek eskuratzeko, euskal kirol-erakundeek oinarri hauen 6. artikularen 4. paragrafoan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Goi mailako kirol-erakundeei beka bakarra esleituko zaie, kirol-diziplina estrategiko bakoitzeko, eranskin honen 4. irizpideari jarraituta.

Kirol-erakunde bat ezin da beka baten onuradun izan modalitate, diziplina edo espezialitate berean Fundación Euskadi Kirola Fundazioak beste pertsona batzuekin, fisikoak nahiz juridikoak, hitzarmenik edo akordiorik sinatuta edo indarrean egonez gero.



II. ERANSKINA

“BASQUE TEAM 2016 BEKA” ESKATZEKO EREDUA (KIROLARIAK)

IZEN-ABIZENAK:

NAN:

HELBIDEA:

TELEFONOAK:

E-MAILA:

KIROL-DIZIPLINA:

KIROL-KLUBA:

ADIERAZTEN DU

BASQUE TEAM 2016 BEKAK emateko oinarriek eskatzen dituzten baldintza guztiak betetzen dituela, 2016. urterako Fundación Euskadi Kirola Fundazioak EHAA-n argitaratu dituenak eta beraz,

ESKATZEN DU

Fundación Euskadi Kirola Fundazioak goi mailako euskal kirola sustatzeko “BASQUE TEAM 2016” beka ematea. Horretarako, honako agiri hauek aurkezten ditu:

- a) NANren edo pasaportearen kopia, eta bizileku-txartela, atzeritara izanez gero.
- b) Euskal Autonomi Erkidegoan erroldaren ziurtagiria.
- c) Euskal Federazioak emandako edo bideratutako Kirol Lizentziaren kopia soila.
- d) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.
- e) Kirol-kurrikulua. Bertan nazioartean lortu diren kirol emaitzarik nabarmenenak deskribatzen dira.
- f) 2016rako kirol-planifikazioa, kirolariak eta teknikari arduradunak sinatua.
- g) Gaitasuna aitortzen duen mediku-ziurtagiria, betiere aurreko lau urteen barruan.
- h) Ingurune teknikoa eta biomedikoa identifikatzeko zinpeko aitortpena, kirolariak sinatua, ingurune horretan sartuta dauden pertsonen kualifikazioak eta akreditazioak barne daudela.
- i) Era gehigarrian, kirol egokituko kirolariek desgaitasun maila egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria aurkeztuko dute.
- j) Adin txikikoa bada, aita/ama edo tutorearen baimena.

_____-(e)n, 2016ko _____aren _____(e)(a)n.

Sin.: Kirolaria _____

Urriaren 15eko 15/1999 Lege Organikoan adierazitakoarekin bat, jakinarazten dugu interesatuak emandako datu pertsonalak, bai inprimaki honetan bai atxikita doan dokumentazioan, Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren fitxategietan sartuko direla, eta Bekak eskatu eta emateko prozeduraren ondoriozko helburuetarako erabiliko direla. Datu pertsonalen titularrari bermatzen zaio eskubidea duela eskuratu, zuzendu, ezereztu edo aurka egiteko, eta horretarako, indarrean dagoen legeriak ezarritakoei jarraituz, Fundación Euskadi Kirolak duen egoitzara jo beharko du (Makaleta etorbidea z/g, 48992- Getxo)



III. ERANSKINA

“BASQUE TEAM 2016 BEKA” ESKATZEKO EREDUA (TEKNIKARIAK)

IZEN-ABIZENAK:
NAN:
HELBIDEA:
TELEFONOAK:
E-MAILA:
KIROL-DIZIPLINA:

ADIERAZTEN DU

BASQUE TEAM 2016 BEKAK emateko oinarriek eskatzen dituzten baldintza guztiak betetzen dituela, 2016. urterako Fundación Euskadi Kirola Fundazioak EHAAAn argitaratu dituenak eta beraz,

ESKATZEN DU

Fundación Euskadi Kirola Fundazioak goi mailako euskal kirola sustatzeko “BASQUE TEAM 2016” Beka ematea. Horretarako, honako agiri hauek aurkezten ditu:

- a) NANen edo pasaportearen kopia.
- b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.
- c) Ikasketa-tituluen kopia soila, oinarri hauen 6. artikulua 3-b) idatz-zatian adierazi bezala.
- d) Oinarrizko bekaren kirol onuradunak sinatutako zinpeko aitortpena, 4. artikulua 1-a) paragrafoan aurreikusitakoarekin bat. Bertan adierazten da kirol teknikari gisa beka eskatzen duena kirolariaren prestatzaile nagusia dela.

_____-(e)n, 2016ko _____aren _____(e)(a)n.

Sin.: Teknikaria _____

Urriaren 15eko 15/1999 Lege Organikoan adierazitakoarekin bat, jakinarazten dugu interesatuak emandako datu pertsonalak, bai inprimaki honetan bai atxikita doan dokumentazioan, Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren fitxategietan sartuko direla, eta Bekak eskatu eta emateko prozeduraren ondoriozko helburuetarako erabiliko direla. Datu pertsonalen titularrari bermatzen zaio eskubidea duela eskuratu, zuzendu, ezereztu edo aurka egiteko, eta horretarako, indarrean dagoen legeriak ezarritakoei jarraituz, Fundación Euskadi Kirolak duen egoitzara jo beharko du (Makaleta etorbidea z/g, 48992- Getxo)



IV. ERANSKINA

“BASQUE TEAM 2016 BEKA”ESKATZEKO EREDUA (KIROL-ERAKUNDEAK)

KIROL-ERAKUNDEA (Sozietatearen izena):

IFK:

Ordez kariaren izena-bizenak:

Erakundearen helbidea:

Telefonoak:

E-maila:

Kirol-diziplina:

ADIERAZTEN DU

Erakundeak **BASQUE TEAM 2016 BEKAK** emateko oinarriek eskatzen dituzten baldintza guztiak betetzen dituela, 2016. urterako Fundación Euskadi Kirola Fundazioak EHAAn argitaratu dituenak eta beraz,

ESKATZEN DU

Fundación Euskadi Kirola Fundazioak goi mailako euskal kirola sustatzeko “BASQUE TEAM 2016” Beka ematea kirol-erakundeari. Horretarako, honako agiri hauek aurkezten ditu:

- a) Kirol-erakundearen IFKren kopia.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan izena emanda dagoela adierazten duen ziurtagiria.
- c) Erakundea eratzeke agiriaren eta estatutuen kopia.
- d) Ordezkatzeke ahalmenaren egiaztatzea.
- e) Kirol-erakundearen ordez kariaren NANren kopia, eta bizileku-txartela, atzeritarra izanez gero.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.
- g) Kirol-erakundeko kirolari guztiak kirolerako gai direla egiaztatzen duten mediku-ziurtagiriak, eskabidea egin aurreko lau urteetakoak.
- h) Kirol-erakundeko kirolari guztien dagokion euskal federazioak emandako edo bideratutako kirol lizentziaren kopia soila.
- i) 2016ko deialdian beka jasotzeko aukera duten kirolarien zerrenda, kirol-plantillakoak direnak.

_____-(e)n, 2016ko _____aren _____(e)(a)n.

Sin.: Kirol-erakundearen ordez karia _____

Urriaren 15eko 15/1999 Lege Organikoan adierazitakoarekin bat, jakinarazten dugu interesatuak emandako datu pertsonalak, bai inprimaki honetan bai atxikita doan dokumentazioan, Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren fitxategietan sartuko direla, eta Bekak eskatu eta emateko prozeduraren ondoriozko helburuetarako erabiliko direla. Datu pertsonalen titularrari bermatzen zaio eskubidea duela eskuratu, zuzendu, ezereztu edo aurka egiteko, eta horretarako, indarrean dagoen legeriak ezarritakoei jarraituz, Fundación Euskadi Kirolak duen egoitzara jo beharko du (Makaleta etorbidea z/g, 48992- Getxo)



V. ERANSKINA / ANEXO V
ESKAERA EREDUA / MODELO DE SOLICITUD

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA O EL SOLICITANTE

Erakundearen izena edo pertsona fisikoaren izen-abizenak / Denominación de la entidad o nombre y apellidos de la persona física*

.....

NAN/DNI: Helbidea/ Dirección:

.....

Posta kodea/Código Postal: Herria/Localidad:

Tel./Telfno.: Mobila/Movil:

Posta elektronikoa/Correo electrónico (e-mail):

Erakundeko pertsona juridikoaren legezko datuak edo adin txikikoa bada, aita/ama edo tutorearen baimena / Datos del representante legal de la entidad deportiva o en caso de ser menor de edad, autorización de padre/madre o tutor*

Izen-abizenak / Nombre y apellidos

.....

NAN/DNI: Helbidea/Dirección:

.....

Posta kodea/Código Postal: Herria/Localidad:

Tel./Telfno.: Mobila/Movil:

Posta elektronikoa/Correo electrónico (e-mail):

BANKUAREN DATUAK / DATOS BANCARIOS

Banketxea/ Entidad Bancaria:

Agentzia/Agencia:

KD /D.C.:

Kontu zk./N.º cuenta:



..... (e)n, 2016ko -aren (e)(a)n

En, a de de 2016

Izen-deiturak/Nombre y apellidos:

.....NAN/DNI:

Sinadura/Firma



VI. ERANSKINA / ANEXO VI
ZINPEKO DEKLARAZIOA / DECLARACIÓN JURADA

IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS.....

.....

NAN / DNI.....

NIRE ARDURAPEAN, ONDORENGOA ADIERAZTEN DUT: / DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD:

Nire Kirol prestakuntzaren arduradun nagusia honako hau dela: / Que la persona máxima responsable de mi preparación deportiva es:

IZENA / NOMBRE:

LEHENENGO ABIZENA / PRIMER APELLIDO:

BIGARREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO:

Ez dut entrenatzailerik / No dispongo de entrenador o entrenadora.

.....n, 2016ko-aren-(e)(a)n.

En, a dede 2016.



VII. ERANSKINA / ANEXO VII

ZINPEKO DEKLARAZIOA INGURUNE BIOMEDIKOA / DECLARACIÓN JURADA ENTORNO BIOMEDICO

IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS.....

NAN / DNI.....,

NIRE ARDURAPEAN, ONDORENGOA ADIERAZTEN DUT: / DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD:

Ez daukat ingurune biomedikorik / No dispongo de entorno biomédico

Badaukat / Si dispongo

Nire ingurune biomedikoa osatzen dutenak honako hauek direla:

Que la o las personas encargadas de mi entorno biomédico es o son:

IZENA / NOMBRE:

LEHENENGO ABIZENA / PRIMER APELLIDO:

BIGARREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO:

ELKARGOKIDE-ZENBAKIA / Nº COLEGIADO:

ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD:

(Ingurune biomedikorik ez balego, mesedez adierazi. / En caso de no tener entorno biomédico, por favor, indicarlo.)

Ez dut eskatzen / No solicito

Eusko Jaurlaritzako HTZko zerbitzu biomedikoak eskatzen ditut balorazio kontrolak egiteko / Solicito los servicios biomédicos del CPT del Gobierno Vasco para la realización de los controles de valoración.

.....n, 2016ko-aren-(e)(a)n.

En, a ...de.....de 2016.

Sinadura/Firma



VIII. ERANSKINA KIROL PLANIFIKAZIOA

Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren kudeaketan bikaintasuneranzko konpromisoan, eta kirolari bakoitzaren informazioaren kudeaketa errazte aldera, 2015-2016 denboraldiaren planifikazioari dagokion informazioa bidaltzea eskertuko genizueke.

Horretarako, eskatzen diren datuak sartzeko egokia den eredia helarazten dizuegu.

2015-2016 denboraldiaren planifikazioak izan beharreko gutxieneko edukiak

- Kirolariaren lehiaketa-egutegia (lehiaketaren izena, data eta tokia).
- Kirol helburu nagusiak (lehiaketaren izena, data eta tokia).
- Bigarren mailako helburuak (lehiaketaren izena, data eta tokia).
- Denboraldiaren hasiera eta bukaera datak.
- Egin beharreko kontzentrazio eta/edo ekitaldi bereziak. Helburuak, data eta tokia.
- Fase bakoitzean egingo diren entrenamendu saioen asteroko banaketa (planifikazio mota zein den, honako honi buruz ari da: metatzea, prestatzeko aldi orokorra...):
 - Entrenamenduaren edukiak.
 - Saio kopurua/astean
 - Ordu kopurua/astean
 - Saioen ordutegia eta tokia.

- Kontrolen/balorazioen proposamena:
 - Kontrol mota
 - Helburua
 - Data
 - Tokia

(*) Eredua betetzeko argitzerik edo laguntzarik behar izanez gero, jarri harremanetan Fundazioarekin.

2015 - 2016 PLANIFIKAZIOA

LEHIAKETAK																															
HILABETEA																															
ASTEAK																															
MAKROZIKLOA																															
ALDIAK																															
MESOZIKLOA																															
MIKROZIKLOA																															
KONTROLAK																															
Entrenamendu saio kopuru/astean																															
Entrenamendu orduak/astean																															

	LEHIAKETAK	DATA	TOKIA	HELBURUA	ESPERO DEN EMAITZA
Lehiaketa egutegia (2015 - 2016)					

*Helburua/lehiaketa mota: lehiaketa nagusiak, bigarren mailakoak ...

Adierazi lehiaketak urteko planifikazioan lehiaketa mota bereiziz

Mesozikloen edukiak:

1. MESOZIKLOA	2. MESOZIKLOA	3. MESOZIKLOA	4. MESOZIKLOA	5. MESOZIKLOA	6. MESOZIKLOA	7. MESOZIKLOA

8. MESOZIKLOA	9. MESOZIKLOA	10. MESOZIKLOA

Kontrolak/Balorazioak (Adierazi kontrolak planifikazioan)

KONTROL MOTA	DATA	TOKIA

Entrenatzailearen sinadura:

Kirolariaren sinadura:



IX. ERANSKINA
LAGUNTZA OSAGARRIEN PROTOKOLOA

Xedea

Laguntza osagarriak emateko oinarriak arautzea Fundación Euskadi Kirola Fundazioan. Laguntza horiek kirolarien kirol-errendimendua areagotzeko erabiliko dira, eta aldez aurretik planifikatu behar diren laguntza ekonomikoen bitartez emango dira.

Jasotzaileak

Laguntza osagarriak jaso ahal izango dituzte Fundación Euskadi Kirola Fundaziokoak diren kirolari guztiek.

Bete beharreko baldintzak

- Onuradunak justifikazio-memoria aurkeztuko dute, X.1 Eranskineko ereduari jarraituta.
- Laguntza osagarriaren xede diren lanak kirol-teknikari arduradunak baloratuko ditu.
- Kudeatzaileak baimendu beharko ditu laguntza osagarriaren xede diren lanak.

Ordaintzeko era

Hurrengo protokoloan adierazitako baldintzei jarraituz, onuradunek honako konpentsazio hauek jasoko dituzte:

- Bidaia gastuak:** lan kontuak direla eta, edozein garraio bide erabiltzeagatik ordaintzen den diru kopurua da. Ibilgailua norberarena ez bada, Administrazio Sailari jakinaraziko zaio, eta horrek egingo ditu dagozkion erreserbak hilabete lehenagotik. Ibilgailua alokatuz gero, ez dira kilometroak ordainduko.
- Jateko gastuak:** gosariagatik, bazkariagatik eta afariagatik ordaindutako kopurua, banaban hartzten dira. Ez da inola ere ordainduko justifikatu gabeko kopururik. Pertsona bakar baten janaria baino ez da ordainduko.
- Mantenu dieta:** ohiko bizilekutik kanpo egoteagatik egin behar diren bazkari eta afariak ordaintzeko egunero sortzen den kopurua. Pertsona bakar baten janaria baino ez da ordainduko.
- Ostatu gastuak:** ohiko bizilekutik kanpo egoteagatik egin behar diren ostatu eta gosariak ordaintzeko kopurua. Hoteletan egoteagatik laguntzak aldez aurretik jakinaraziko dira Administrazio Sailak erreserba egin dezan. Inola ere ez dira ordainduko aurretik eskatu eta onartu ez diren hotelen fakturak. Alokaturako pisuen kasuan, lehenago fundazioari egin beharko zaio kontsulta.
- Beste gastu batzuk:** aurrekoen barruan ez dauden gastuak eta kirolariaren errendimendua hobetzeko beharrezkoak direnak. Gastu horiek faktura izango dute, eta bertan Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren datuak agertuko dira. Faktura Fundazioak ordainduko dio hornitzaileari, eta inola ere ez zaio kirolariari ordainduko hirugarren baten fakturari dagokion zenbatekoa.

Oharrak: Aurkeztutako tiket eta faktura guztiak behar bezala justifikatu eta argituko dira aurkeztutako tiket edo fakturan bertan azalpen txiki bat eginda.



Hauexek dira fakturan agertu beharreko datuak:

FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOA

IFK: G95500559

Makaleta etorb., 64

48992 Getxo (Bizkaia)

Ostatu tokira joateko dieten eta kilometro gastuen kasuan, X.2 Eranskina eta X.3 Eranskina beteko dira, laguntza osagarriaren balorazio-txosten gisa.

Zenbatekoak

- **Janari gastuak:** 21 euro, gehienez egunean
- **Mantenu dieta:** 42 euro, gehienez egunean
- **Kalte-ordaina ibilgailu partikularra erabiltzeagatik:** 0,19 euro/km
- **Ostatu gastuak:** ez da erreserbatuko 3 izarretik gorako hotelik.

Irizpideak

- *Laguntza osagarriak kirol-errendimendua areagotzeko dira, baita Fundazioak eta kirolariak adostutako funtsezko lehiaketak ezin hobeto planifikatzeko ere.*
- *Eskatzailearen kirol-merituek lehentasuna dute kirolari onenen beharrak aintzat hartzeko orduan.*
- *Laguntza hauek bereziki izango dira lehiaketa nagusie begirako prestaldiak eta kontzentrazioak egiteko, gerora sortutako edo hasierakoak baino egokiagoak diren lehiaketatera joateko, betiere beste erakunde batzuek, hala nola federazioak edo klubak, ordainduta ez badaude.*
- *Egonaldiaren bikaintasuna baloratuko da helburuak ahalik eta kalitate handienarekin bete daitezela.*
- *Eskaera egiten den unean, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak dituen baliabide ekonomikoekin bat hartuko dira eskaerak.*

*Aurkeztu beharreko agiriak: **Laguntza osagarria eskatzea (X.1 Eranskinak).***

Instantziak aurkezteko epea. *Laguntza osagarrien eskaerak gastua egin aurretik aurkeztuko dira, baloratu eta, beharrezko bada, onartu edo ukatzeko.*

Epearen hasiera: 2016/01/01

Epearen amaiera: 2016/11/30

Non aurkeztu

Pertsona eta erakunde interesdunek Fundación Euskadi Kirola Fundazioari zuzendutako idazki bidez bidaliko dituzte eskaerak, Makaleta etorbidea, 64, Getxo (Fadura Teknika Hobekuntzarako Zentroa), honako posta elektronikora: fundacion-ek@euskalnet.net edo Fundazioaren intranet bidez, URL helbidea: <https://sis.netaphora.es/beta/login.jsp>

Ebazteko epea

Bi hilabete, laguntza osagarria eskatzen denetik zenbatzen hasita.



X.1 ERANSKINA

- LAGUNTZA ESKATZEN DUENAREN DATUAK

ABIZENAK ETA IZENA:
NAN:
KIROLA:

- JARDUERAREN DESKRIBAPENA:
- HELBURUAK:
- TOKIA:
- DATAK:
- AURREKONTUA:



**X.2
ERANSKINA
GASTUEN
LIKIDAZIOA**

BIDAIA NORA:									
BIDAIAREN HELBURUA:							GARRAIOBIDEA:		
DATAK →							KM GUZTIRA	PREZIOA KM	EUROAK GUZTIRA
Norberaren autoa									
Trena/Hegazkina/Autoa									
Bidesaria									
Parkina									
Taxiak									
Ostatua									
Gosaria									
Bazkaria									
Afaria									
Beste batzuk									
GASTUAK GUZTIRA (Erantsi egiaztagiriak)									
DIFERENTZIA=ERREKLAMATU/(ITZULI)									

O.E.	INTERESATUA,	EGOZTEKO KONTUA:
	JASO DUT, EUROAK	OHARRAK:



**X.3 ERANSKINA
LAGUNTZA OSAGARRIAREN BALORAZIOA**

- DATA:

- KONTZENTRAZIOA NON EGIN DEN:

- HELBURUAK:

- EGINDAKO PROGRAMA:

- ONDORIO OROKORRAK: